

kultura eta fede

Gure gaurko eztabaida askoren azpitik bi galdera jaiotzen dira borborka: zer da kultura, zer da fedea? Gizona, nola jator eta zuzen kulturatu munduarekiko harremanetan? Eta fedea, kulturarekin bat ote dugu?

Gizonak bere burua inguruko gauzetatik berezi zuenean, baitaratu egin zen, bere buruaz jabetu, kontzientziatu. Gertakizun garrantzizkoa izan zen hura.

Harrez gero, mundugintzaren ardura bere gain hartu zuen. Eta kulturaren "teknika" jaiotzen. Erlijioa ere —ez da fedea esan nahi— kulturatze horren "tresna" bat izanen litzake.

Munduaren kulturatzea ez du gizonak bakarrik egiten: gizarteak, giza-elkarteak egin du beti. Eta hemen sortzen dira ulerbideak, sinboluak, honek egiten bait du posible gizartea bera ere. Kultur gizarte hori elkarte konkretu batean eratzen da, sinbolu-sistema jakinean, herri bat da. Hone-la, gizartegintza, herri jakin batean mamitzen da eta herri honen tradizioak gordetzen ditu herri-tasunaren ulerbide sinbolikoak.

Herrikide bakoitzaren gizagintza eginkizun dinamiko bihurtzen da gizon bakoitzagan; baina giza-kulturagintza herriaren bidez ematen bazai-gu, fedea "besterengandik" datorkigu. Fedea dohan, debalde, emana da, eta emari hori onartzean, libreki onartzen da, zu bat onartzen dugun bezalaxe, fedean norbait onartzen bait dugu. Honegatik, fedea zientzia baino harago doa, aberatsago da, ez bait du aski egia hutsarekin.

J. I.